

ORIO

GUKA



SAN PEDRO
FESTAZ HARRO

BARE

HORTZ KLINIKA

📍 Arrantzale 63, behea

📞 943-29 06 19

639 44 52 34

📱 @bare.hortzclinika

*Ondo
pasatu
jaiak!*



- **Implanteak**
- **Ortodontzia / Alineadoreak**
- **Odontopediatria (PADI)**
- **Odontologia biologikoa**
- **Odontologia estetikoa**

SLOW

ODONTOLOGIA



Iritzia

Aritz Pardina

Bihurgunea herrigintzarantz?

Badatoz aurten ere San Pedro jaiak. Halaber, badatoz ospakizunarekin batera ikasturte amaiera, uda usaina eta, noski, gozatzeko parada ederra. San Joan jaietako ajea guztiz pasatu gabe, txupinazoaren jiran hasiko da herria girotzen. Hortik aurrera, ohiko kalejira, kontzertu eta abarrak izango ditugu kaleetan, harik eta herria adin guztietako arrantzalez beteko zaigun

arte ogibide horri eskainitako egunean. Ohi bezala, egitarauak adin tarte guztiak hartu baititu aintzat. Zorteko gara, beraz, urteak pasatu ahala San Pedro jaiak oinarri herrikoi, euskaldun eta errespetuzkoari ondo eutsi dioten heinean. Ez da meritu txikia, boladan dau den joerak eta euren eragina ikusita.

Dena dela, ospakizunak baiditu bere itzalak ere; ez Orioko San Pedro jaiak bereziki, bai-

zik eta oro har ezartzen ari den euskal festa ereduak. Besteak beste, herriko kultur eragileok hori izan genuen hizpide Orioko Kultur Egoeraren Plan Estrategikoaren diagnosi fasean. Izan ere, asko bat etorri ginen honakoan: auzolanaren gainbehera nabarmena ari da gertatzen nola euskal festa herrikoietan, halatsu Orioko jaietan. Garai batetik hona asko jaitsi da herritarrek festen antolaketan duten parte har-

«Halaber, badatoz ospakizunarekin batera ikasturte amaiera, uda usaina eta, noski, gozatzeko parada ederra»

«Ondorioz, jarrai bezate festa hauek giro herrikoi eta begirunetsuaren eredu izaten»

tzea, bereziki gazteen artean. Hala, funtsezko osagai horren berreskurapena jomuga, lanean aritu beharko dugu hemendik aurrera.

Ondorioz, jarrai bezate festa hauek giro herrikoi eta begirunetsuaren eredu izaten. Hori ziurtzat eman dezakegunez, aurrerantzean, espero dezagun herrigintzarantzko bihurgunea hartuko dugula aurten abiatu den kultur hausnarketaren bultzadapean.

kutixi
kafetegia

ondo pasa jaiak!


Aritzaga 9 · ORIO · 943-13 15 17

GUKAkide

Gukaren bazkidetza formula berria da.

Komunitate zabala eraikitzen jarraitu nahi dugu, euskaraz eta herrigintza sustatuz ahal dugun neurrian. Horretarako, herritarren eta eragileen babeseta eta atxikimendua behar beharrezkoak ditugu.

3 bazkidetza mota aukeran:



Abantailak:

- Papereko argitalpenak etxean, Gukakide digitalak izan ezik.
- Argitalpenak digitalki eskuragarri.
- Guka aplikazioan bazkideentzako txokoa.
- Zozketak eta lehiaketak.
- Ekitaldiak.
- Deskontu sarea.
- Argazkiak eta bideoak deskargatzeko aukera.
- Komunikazio eta marketin zerbitzuetan %10eko deskontua, Gukakide babesleak.
- Aterpen zure saltokia eta eskaintza bereziak, Gukakide babeslea bazara.

IZAN ZAITEZ
Gk!





Iazko festetako jubilatuen otordu bateko irudia.

Askotariko ekitaldiak sanpedroetan

Lau egunez askotariko ekitaldiak izango dira San Pedro festetan. Urteko zenbait ekitaldik hutsik egin ezin badute ere, badira berrikuntza eta sorpresa batzuk. Horiek ezagutu nahi?

Ahalik eta herritar gehienaren iriste da festenasmo nagusia, eta, horretarako, oriotar guztien neurrira prestatu behar dira festak. Antolaketan dago funtsa, beraz. Hala, aurtengo San Pedro jaiak adinekoen zuzendutako ekitaldi batekin hasiko dira: jubilatuen hamaketakoekin. Jubilatuek agendan gorde beharreko hitzordua San Pedro bezperan, ekainak 28, egingo da Zaharren Babeslekuan, 10:30etik 12:30era artean. Bazkaria, berriz, uztailaren leian egingo dute, Balea hote-

lean. Antolatzaileek adierazi dutenez, bazkarirako izena aurrez eman beharra dago.

Hurrengo ekintza duela urte batzuk egiten zen bat da: San Martinera igoera. Aldapa elkar-teak antolatuta berreskuratu da garai batean Goiko Kaleko festetan egiten zen herritarren arteko bizikleta lasterketa. Oraingo honetan, plazatik San Martinera, kioskopetik aldapa amaitzen den zuhaitzaren pare-ra, izango da ibilbidea, baina 8 eta 14 urte bitartekoek Pillikun amaituko dute. Parte hartzea errazteko hiru aukera proposatzen dituzte antolatzaileek: errepideko edo mendiko bizikletarekin, bizikleta elektrikoarekin edo bizikleta berezie-

kin parte hartzea. Askotariko sariak izango dira, eta ez lehen sailkatuentzat bakarrik; beraz, eman izena kiroldegian edo herriko ikastetxeetan eta parte hartu!

Era berean, Talai Mendi elkar-teak 75 urte bete ditu aurtan, eta ekitaldi berezia prestatu du San Pedro egunerako. Slackline edo soka erraldoia muntatuko du Oreka taldeak udaletxetik Gureak eraikinera, eta altueran pasatuko da soka erriorearen gainetik. Horrez gain, beste soka bat botako dute moilatik Mutiozabal plazara etxeko gazteenek modalitate hori probatzeko aukera izan dezaten. Hori bai, ezinbestekoa izango da neopreno-zko jantzia eramatea.

edartegia **Antilla** jatetxea

Ondo pasa festak!

Abeslari kalea, 2
ORIO
943-83 23 09

- Menuak
- Plater konbinatuak
- Errazioak
- Ogitar-tekoak

arkaitz taberna
••••• orio

- EGUNEKO MENUA
- OGITARTEKOK
- PINTXOAK
- PLATER KONBINATUAK
- KARTA

Ondo pasa festak!

abeslari kalea 6 - 943-83 16 57

Gabon
TABERNA

ONDO PASA JIAKI!

SUKALDEA IREKITA

Pintxoak | Plater konbinatuak | Ogitar-tekoak

EUSKO GUDARIEN KALEA, 7 - 943-83 06 09



Eusko gudari, 24 - 943-83 12 81

ITZIAR
KIROLAK

Ondo pasa jaiak!

Eusko Gudarien kalea, 23
ORIO - 943-83 31 03



Festarik ez Pello eta Nikolasa gabe

Bata arrantzalea eta bestea sarregilea, Pellok eta Nikolasak pisu handia dute Orioko festetan. Izan ere, bikote hori gabe ez da festarik herrian. Sanpedroetan berriro herriko kaleetara aterako dira, hiru egunez, oriotarrak dantzan jartzeko asmoz.

Hona hemen egunak eta egun bakoitzeko ibilbidea:



«Giro ederra dugu, familiako planak egiten ditugu kalejira egunetan»

Jon Itxaso Lizaso Pello eta Nikolasa taldeko kidea

Festetan parte hartze handia izaten dute zenbait herritarrek. Horietako bat da Jon Itxaso; laster bete zaio agenda hari, izan ere, txarangan tronpeta jotzen du eta Pello eta Nikolasa erraldoiekin dantzan aterako da egunero. San Pedro aurreko asteotan ibilbideak lotzen eta giza taldeak antolatzen ari dira konpartsako kideak, gonbidatuak izango baitituzte; Vilafranca del Penedes (Bartzelona) herritik etorriko dira Drac eta Aliga figura bereziak.

Noiz hasi zinen Pello eta Nikolasaren taldean laguntzen?

2012. urtekoak dira Pello eta Nikolasa. Gu geroago hasi ginen taldean; zortzi edo hamar urte izango dira. Jendea falta zen herriko erraldoiak dantzatzeko, eta guraso talde bat animatu ginen.

Zenbat lagun zabiltzate?

Sei-zortzi lagunek osatzen dugu taldea, baina gutxitan biltzen gara guztiak, umeen eta gurasoon agenda geroz eta estuagoa baita, eta norbaitek huts egiten du beti. Aukeran, taldekide berriak gustura hartuko genituzke, eta bakarren bat animatu da azken deialdian. Giro ederra dugu, familiako planak egiten ditugu kalejira egunetan; etxeko txikiek ere erraldoiak dantzatzen dituzte, eta gure aurretik joaten dira.

Azkenaldian festetako egitarauaz kanpo ere atera dira Pello eta Nikolasa kalera.

Udazkenean Nafarroako Eguesibarreko taldearen bisita izan genuen; Jorge Oteizaren erraldoiak jaiotetxean hasi zuen Orioko kalejira. Oso esperientzia ederra izan zen guretzat, Nafarroa erraldoien tradizio handiko eremua delako eta konpartsek nola funtzionatzen duten ikasteko aukera izan genuelako. Bide horretan jarraitu nahi dugu, eta duela aste batzuk, artisau azokaren barruan, Lazkaoko [Gipuzkoa] Mari eta Basajaun etorri ziren. Lazkaokoa duela urte gutxi hasi eta indartu den taldea da. Datorren urtean joango gara Eguesibarrera eta Lazkaora. Aurten bizpahiru bidaia aurreikusten ditugu: apirilean San Telmo festetan izan ginen herriko txarangarekin batera,

arratsalde ederra pasatu genuen repetizioetan; uztailean Azpeitiko erraldoien topaketan izango gara lehendabizikoz; eta asmoa da egunen batean Vilafranca del Penedesera joatea.

San Pedro festetan bisita berezia izango duzue.

Bai, San Pedro bezperan eta San Pedro egunean hemen izango ditugu Vilafranca del Penedes herritik etorritako bi figura, historia handia dutenak, Drac eta Aliga. Vilafrancako *Festa major* Kataluniako berezietakoa da, eta figura oso ezberdinak dira, horizontalak biak. Dragoia da ezagunena, historialariek XIII-XIV mendeetan kokatzen dute haren sorrera, eta Kataluniako ondare izendapena duten ondasunen inbentarioan dago. Ia lau metroko luzera du, eta 115 kilo pisatzen ditu. Ikusgarria da, figura ederra izateaz gain, sua eta soinua baliatzen ditu ibilbidean zehar. Aliga ere Kataluniako zaharrenetakoa da, 1.600 urte ingurukoa. Dantza solemneak eta kalejirako dantzak tartekatzen dituzte taldeko

dantzariak. Guztira 30-35 lagun etorriko dira Oriora, eta orain ari gara antolaketa lanak fintzen: ohiko ibilbideak aldatu behar izan ditugu segurtasuna indartzeko, eta ordutegiak atzeratu ditugu sua iluntzean hobeto ikusiko delakoan. Hala ere, historia handiko talde hauetatik ikastea da gure asmoa; asteburu ederra pasatzea espero dugu.



«San Pedro jaietan hemen izango ditugu Vilafranca del Penedes herriko Drac eta Aliga figurak»

«Drac figura ederra da, eta sua nahiz soinua baliatzen ditu»



Jon Itxaso Lizaso, Orioko erraldoiekin.

Orekaz beteriko urteurrena

Slackline oreka lantzen den kirola da, eta, horretarako, tenkatu gabeko zintalaua erabiltzen da, bi puntu finkoren artean eutsita. Kaliforniako (AEB) Yosemite haraneko bi eskalatzailak (Adan Grosowsky eta Jeff Ellington) sortu zuten slackline modalitatea, 80ko hamarkadaren hasieran, eta apar-kalekuetako zuhaitzen artean soka eta kableak erabiltzen hasi ziren entretenitzeko. Denborarekin aurrera egin zuten, eta eskalada ekipoak erabiltzen hasi ziren.

Kirola ospea hartzen eta mundu osoan hedatzen hasi zen pixkanaka. Orain, 40 urte geroago, Orion bertan kirol horretaz gozatzeko aukera izango dute herritarrek; izan ere, Talai Mendi taldeak antolatuta, slackline ikuskizuna izango da herrian San Pedro festen

barruan. Udaletxetik Frantses fabrikarako ibilbidea egingo dute ekainaren 29an, 11:00etatik aurrera.

Ikuskizun berezia Talai Mendi taldearen 75. urteurrenaren ospakizunen barruan kokatu dute: «Zerbait berezia eta originala eskaini nahi genuen, eta aukera desberdinak aztertzen aritu ondoren, slackline modalitatearekin egin genuen topo. Gure aukeren eta baliabideen barruan sartzen zen, eta aurrera egitea erabaki genuen. Ondoren, ibilbidea nondik nora prestatu erabaki behar izan genuen, eta, horretarako, aukera desberdinak eman zizkiguten: hondartza inguruan bat, eta herri barruan pare bat -zubitik bata, eta Itsaspe ingurutik bestea-. Festak direla eta data kontuan izanda, herri barruko aukeretara jo genuen, eta, beraz, errioa zeharkatuko dute plazarako norantzan. Ikusgarria izango dela eta oriotarrek

gozatua hartuko dutela espero dugu», azaldu du Talai Mendi elkarteko zuzendaritzako kide Mikal Etxeberriak.

'SLACKLINE' ERAKUSTALDIA

NOIZ?

Eguna. Ekainak 29, larunbata, San Pedro Eguna.

Ordua. 11:00etan.

ZER?

Ibilbidea. Udaletxea eta Frantses fabrika artean.

Herritarrentzat. Umeentzat beste zinta bat jarriko dute. Ezinbestekoa da neoprenoa.

Ekintza gehiago

Mendi irteerak, dantza suelto eskolak, Kukuarri futbol taldea, boulderra, eskalada saioa elizako paretan, Bizar Zuri eta

Errege Magoen kabalkada, jaiotzen eta Gabonetako abestien lehiaketa, umeentzako jolasak, diapositiba emanaldiak, Mendi Astea, Kukuarri Eguna... Luzea da mendi taldeak urte luzez izan dituen zereginen zerrenda. Horietako batzuk bertan behera geratu ziren duela zenbait urte, eta gaur egun, mendi irteerekin eta dantza ikastaroekin jarraitzen dute. Kultur ekitaldiak, beraz, atzean uzten joan dira Talai Mendi elkartekoak, baina sanpedroetako slackline emanaldiarekin, iraganeko garai haiei keinu txiki bat egin nahi izan diete. «Garaiak aldatzen doaz, eta horrekin batera, gure egunerokotasuna ere aldatu

«Garaiak aldatzen doaz, eta horrekin batera, gure egunerokotasuna ere aldatu da»

«Urteurrena ondo ospatuta geldituko dela uste dugu»

da. Hala, taldeak ezin du dena antolatzen jarraitu, eta kultur ekintzak bertan behera utzi genituen. Antolatzen duguna, ordea, ahalik eta txukunen egiten saiatzen gara», gehitu du Etxeberriak.

Gaur egun antolatzen dituzten urteko ekitaldi finko horiei, gainera, urteurreneko jarduera bereziak gehitu zaizkie aurten. Maiatzeko Mendi Astean oinarritu dira, batik bat, baina egin dituzte beste hainbat ekitaldi ere: filma eskaini zuten otsailean, Gorbeara irteera egin zuten martxoan, landare inbaditzaileen saiakera ekainaren hasieran... Uztailean eta abuztuan ez dute ezer izango, baina irailan umeekin arroila jaitsiera egiteko irteera prestatu dute, eta abenduan, berriz, babarrun jana eta irteera egingo dituzte. «Ez da ikaragarriko egitaraua, baina gure aukeren barruan antolatutako ekintzak dira. Gauza bereziak edo desberdinak egiten saiatu gara, eta, adibidez, parapentea egiteko aukera ere izango dute federatuek eta bazkideek. Urteurrena ondo ospatuta geldituko dela uste dugu», amaitu du Etxeberriak.



KAÏOA

  **kaioa_denda**
 **www.kaioa.es**

Ondo pasa jaiak!

Kepa Loidi
harategia-urkategia

24 orduz harategi banagailua



Pelotari kalea, 1 · Orio · 943-83 25 65
www.kepaloidi.com · info@kepaloidi.com

Kolon Txiki
edaritegia · jatetxea

Ondo pasa festetan!

Herriko Enparantza 4 · ORIO · Tel.: 943-83 00 44

MUXUTRUK LOREDENDA

Hemen gaude zure bizitza kolorez eta alaitusunez betetzeko

Balearen kalea 3, Orio · 627 63 00 22
muxutrukloredenda@gmail.com · Muxutruk lorendenda

 **Occident** *Barranco*
Agencia Exclusiva

Endaia 1, **Orio**.
688 714 869 / 943 111 600
sbarranco@occident.com


@occidentbarrancoagencia



Horia, eta beste kolore guztiak

1969ko ekainaren 28an izan zen errebotaren ondorioz sortu zen Harrotasunaren Eguna. Orain, 55 urte geroago, Oriok San Pedro jaietan txertatua du egun hori: festei hasiera ematen dien txupinazoa ortzadarraren koloreekin tindatzen dute. Egunak duen garrantzia eta egiten duten kontzientziario lana ezinbestekoak direla uste dute Orioko LGBTIQ+ kolektibokoek.

1 969. urteko ekainaren 28an errebolta izan zen New Yorkeko (Ameriketako Estatu Batuak) Stone Wall tabernan. Egun hartan, gay, lesbiana, transexual, bisexual eta intersexual pertsonak protesta egin zuten, poliziarengandik jasaten zituzten sarekaden kontra. Orduetik, egun hori da Harrotasunaren Eguna.

San Pedro jaiak Harrotasunaren Egunean hasten dira, eta horregatik, iaiztik, herriko LGTBIQ+ kolektiboa arduratzen da txupinazoa botatzeaz. «Orion beharra bazegoela ikusita, iaizko festen aurretik taldea sortu genuen, herrian lanketa egiteko asmoz. Poliki-poliki taldea handitzen joan zen, eta udalera jo genuen txupinazoi buelta bat emateko proposamenarekin. Izan ere, kolektiboarekin lotutako zerbaite esaten zuten suziria jaurtitzera, baina ez zela nahikoa iruditzen zitzaigun. Hala, gure laguntza eskaintzen diogu

udalari festa eredu berri bat antolatzeko orduan», agertu dute kolektiboko kideek.

Txupinazoaren egunerako ideiak ematen ditu kolektiboak, besteak beste, kontzertuetarako taldeak edota txosnetarako produktuak (pegatinak, zapiak, banderak..) proposatzen dituzte. Azken finean, kontzientziario lana egin nahi dute; izan ere, garaiak asko aldatu diren arren, oraindik beharrezkoa izaten jarraitzen duela uste dute. «Herri txikietan kontzientziario ez dela behar ematen duen arren, hori ez da horrela. Iaz pare bat eraso homofobo gertatu ziren,

«Badirudi herri txikietan ez dela kontzientziario behar; ez da horrela»

LGTBIQ+ kolektiboa beste festa eredu bat gerturatzen saiatuko da herritarrari



ROSANA ARRUTI ARGAZKI ESTUDIOIA

eta aurten ere izan da beste bat. Horiei erantzun kolektiboa eman diegu, baina, hala eta guztiz, beharrezkoa izaten jarraitzen du Harrotasunaren Eguna». Dena den, hori ez da nahikoa kolektiboko ustez; orain, Hezkidetza Mahaia eratu dute hezkuntzaren arloan, eta han jarri dute mahai gainean kontzientziarioaren gaia. «Gainontzeko kolektiboak ere horren jakitun dira, eta ikaste-

txeetan ari dira lantzen. Hala ere, maiatza eta ekaina izaten dira gai hauek lantzeko hilabeteak, baina adierazi izan diegu hortik kanpo ere lan egin behar dela. Ezin du hilabete edo hilabete eta erdiko lanketa izan, urte guztikoa baizik. Normalizatu egin behar da, jendea kontziente izan dadin eta ikas dezan», gaineratu dute.

Orioko LGTBIQ+ kolektiboa beste festa eredu bat gertura-

tzen saiatuko da herritarrari, antolatutako kontzertuekin, kontzientziario ekintzekin... «Festaz gozatu behar da, baina garbi dugu aldarrikapenak bere tartea izan behar duela jaietan; jendeak jakin egin behar du zer ari den gertatzen, herri mailan lanketa egin ahal izateko. Eta, noski, errespetua izan dadila festen oinarrian, erasorik gabeko egunak izan daitezela», amaitu dute.



EGIN ZURE ERRESERBA
625 70 08 98
ZENBAKIRA DEITUTA



Olaskoegi auzoa, 36 · AIA-ORIO · 625 70 08 98

Ondo pasa jaiak!



Festa goxoaren osagaiak

Kazuela berean osagai asko sartu behar dira otordu goxoak prestatzeko. San Pedro jaietako Arrantzale Eguna da otordua, eta osagaiak, berriz, bertan parte hartzen duten herritarrek. Osagai horien baturak Arrantzale Egun zapoetsua egiten du.



BALEAREN BIDEA

Ezagutu Orio panelen bidez!

8 geldione
13 hizkuntza
Distantzia: 4 km
Denbora: 1,5 h



Zaragueta IPI
HERRIESKOLA 2-16
Orio

orioko
CURRICULUMA



ROSANA ARRUTI ARGAZKI ESTUDIOA

Zapora ona lortzea kimika kontua da. Sukaldaritzaren munduari dagokionez, osagai bakoitzak berebiziko garrantzia du otorduen sorkuntzan. Osagai desberdin horien arteko aukeraketa ez da, ordea, zapora kontua soilik, azken emaitzaren testuran, itxuran eta kalitate orokorrean ere eragina du. Hala, osagai naturalek eta kalitate onekoek aberastasuna eta zapora eskaintzen dituzte. Aukeraketa horrek kontsumitzailearen esperientzia sensorialean eragiteaz gain, sukaldariaren filosofia eta balioak ere islatzen ditu.

Gauza bera gertatzen da festekin. Hamaika ekitaldi antola daitezke, baina ekitaldi horietako osagaiek izango dute arrakastaren erantzuna. Horrela, osa-

gaiak freskoak eta gertukoak izateak garrantzi berezia du jaiak ondo joateko, eta horren adibide garbiena da sanpedroetako Arrantzale Eguna. Bertan parte hartzen duten osagai desberdinak dira, besteak beste, dantza, arrantza ondarea, saregileei eta arrantzaleei omenaldia, talde lana, jan-edana edota jostintza.

Bertakoak, gertukoak diren osagaiak dira, denek ezagutzen dituzten izen-abizenak dituzte, eta osagai horiek guztiak ezagutzeko festaren antolatzaileen eta parte hartzaileen hitzak jaso ditu Oriko Gukak:

Maitane Mujika

Dantzaria da Maitane Mujika txikitatik, Arrantzale Egunaren antolaketan lagun dituen Koro Sarasola, Ma-

rijo Salsamendi, Karmele Blanco eta Eneko Dorronsoro bezala. Boskotea da elkarlan handi horren motorra.

«Dantza munduak elkartzen gaituen bost laguneko taldetxo bat gara. Lehendabiziko aldiz, 2017. urte hasieran elkartu ginen San Pedro jaien inguruan go-goeta egiteko asmoz. Festa parte hartzaileak izatea nahi genuen, eta *inudeak eta artzainak* gaitzat hartuta, egun osoko jaia antolatu genuen. Hurrengo urtean, 2018an, aurreko urteko jaiak izandako arrakastari eutsi nahian, *Antzinako ezkontza* ospatu genuen. Eta 2019an, berriz, aurrenekoz, Arrantzale Eguna antolatu genuen. Hiru festak gure ondare kulturalarekin lotutako gaien ingurukoak izan badira ere, azkenak, Arrantzale Egunak, badu kutsu berezi bat: herriari urteetan errotuta duen izaera ematen dio».

**ONDO PASA
SAN PEDRO
Jaiak!**

Orioko Herri Ikastola
ORIO GARA

oriokoikastola.eus

Jon Mugika

Jon Mugika arrantzale jubilatua da, eta bera da gaur egun Arrantzaleen Kofradiako presidentea.

«Lehen San Pedro festak arrantzaleen festak izaten ziren, antxoa denboraldia amaitu eta hegaluzearen kostera hasi bitartean ospatzen ziren, eta Kofradiak bere gain hartzen zuen antolaketaren gastuaren zati bat. Ederra da Arrantzale Eguna berreskuratu izana: Orio herri arrantzalea izan da eta da, nahiz eta gaur egun bapore gutxi ditugun moilan. Kofradiatik arrantzale eta saregile jubilatuei dei egiten diegu ekitaldi nagusiko omenaldira joateko. Banan-banan abisua pasatzea lan nekeza da; horregatik, deialdi publikoa egin dugu. Gu festarako prest gaude, bazkari txartelak hartu ditugu eta».

Iñigo Gaztañazpi

Urtetik urtera, dantzarien parte hartzeak nabarmen egin du gora Arrantzale Egunean. Iaz, 80 dantzari inguruk parte hartu zuten: haur, gazte eta heldu. Parte hartzeko deia Aste Santuko oporrak pasatutakoan eginen dute formalki, eta maiatzaren erdialdean hasten dituzte entseguak. Gaztetxean elkartzen dira asteazkenero, 19:00etan. Dantzari horietako bat da Iñigo Gaztanazpi.

«Ez naiz dantzaria izan, baina Jaione bikotekidea eta biok beste guraso batzuekin animatu ginen duela bi edo hiru edizio. Ilusioz hartzen dugu erronka;

fiesta barrutik bizitzeko modua ematen digu, eta oso ondo pasatzen dugu entseguetan eta egunean bertan. Dantzak ez dira batere zailak, dantzan gutxiago aritu garenak ere egiteko modukoak dira. Axuri Beltzarekin izaten dugu lanik handiena kalejiran. Ondoren, plazan, emanaldi laburra eta polita izaten da: kaxarranka, sardinerak, batelerak, agurra... dantzari askok parte hartzen dugu».

Antxon Mendizabal 'Mendi'

2024. urtean inbertsio batzuk ere egin dituzte; hiru, nagusiki: Orio Arraunketa Elkarteko arraunak egokitu ditu Imanol Urkizuk bateleren dantzarako, kaxarranka gainean dantzatzen duen dantzariaren arropa sortu du Ramon Garcia euskal jantzietan adituak, eta, azkenik, kaxarranka egin du Antxon Mendizabal *Mendi* herriko artistak.

«Orioko Udalaren, Arrantzaleen Kofradiaren eta Arrantzale Egunearen bultzatzaileen deia jaso nuen, ohorea eta ardura sentitu nuen; artisau gutxi gelditzen gara, eta halako lanak asko eskertzen ditugu. Enkarguzko kutzak egiten esperientzia handia daukat, halere. Lekeitioko [Bizkaia] kutxa hartu dugu eredu, haren neurriak eta argazkiak. Gaztain egurrarekin egin dugu kaxarranka, sendotasuna emateko. Orain ospatzea tokatzen da; familian ospatu izan dugu Arrantzale Eguna; aitona ere arrantzalea zen, eta gustuko dugu gogoratzea».

Elena Errasti

27 urte daramatza Elena Errastik Danbolin musika eta dantza eskolako zuzendari lanetan. Aurten lehenengo arituko dira musika eskolako kideak Arrantzale Eguneko kalejiran eta ekitaldian.

«Herrian egiten diren beste festa askoren kasuan bezala, Danbolin musika eta dantza eskolako irakasle eta ikasleek poz-pezik jaso genuen antolatzaileen gonbita. Musikariak herrikoak izango dira, eta aspaldi samar koordinatu genituen egunean zehar joko eta dantzatuko ditugun piezak. Musika eskolako kideek soka dantzaren, Pello eta Nikolasaren kalejiran eta bandaren konzertuan parte hartuko dute».

Aitzol Arrospide

Muskuilu Harria elkarte gastronomikoko kide da Aitzol Arrospide, eta urtero sardinak erretzen ditu Arrantzale Egunean herritarrei eskaintzeko. Aurten, ordea, egun horretan beste modu batera parte hartuko duela aurreratu du: dantza egingo du.

«Iaz, denon artean, festa oso polita antolatu genuen Arrantzale Egunerako; dantzariak giro ederra jartzen dute ospakizunean, eta, gainera, erretzen jarri genuen jenero guztia saldu zen: sardina denak amaitu ziren. Ederra lizateke aurten plazan postu gehiago jartzea, ea beste elkarte gastronomikoak animatzen diren hirugarren postu bat jartzera».



GUKA

ZOZKETA

ORIOGUKA.eus

webgunean
<<<



Parte hartu
ekainaren 30a
baino lehen,
eta irabazi **itsaskiz**
betetako saskia



*Zuzenean
parte hartzeko*

TXANKA
MARISCOS

TXANKA MARISCOS en eskutik
www.mariscostxanka.net

ERASO MATXISTARIK GABEKO FESTAK

EZ BETI DA EZ

Ez izan konplize LGTBifobiaren aurrean; ez gelditu isilik.
Herritar guztion ardura da **ERASO MATXISTAK BAZTERTZEA.**

Bakarrik
BAI
da Bai

ZER DA INDARKERIA MATXISTA?

Emakumeen, nesken eta arautik kanpoko genero-identitate edota sexualitatea duten pertsonen duintasunari, estimuari eta osotasun fisiko eta mentalari zapalkuntza eragiten dieten ekintzak dira.

Egiturezko indarkeria da, gizarte guztietan eta gizartearen eremu guztietan azaltzen delako.

- *Indarkeria sexista*
- *Homofobia*
- *Lesbofobia*
- *Transfobia*
- *Arrazakeria*

ZER EGIN ERASO BATEN AURREAN?

- **Ez isildu eta ez ezkutatu.** Erasoren erantzukizuna erasotzailearena da, ez eraso jasan duenarena.
- **Erantzun erasotzaileei, geldiarazi beren jarrerak.** Eman babesa eta laguntza lagunari, izan ezaguna edo ezezaguna. Ez utzi bakarrik!
- **Sexu-erasoa edota eraso fisikoa jasan baduzu,** zeure erabakia da salatzea edo ez.
- **Bilatu konfiantzako norbait** lagun zaitzan.



24 ORDUZ MARTXAN DAUDEN TELEFONOAK

SALATU NAHI BADUZU

Larrialdiak 112

SALATU NAHI EZ BADUZU

SATEVI: Sexu erasoak jaso dituzten emakumeentzako informazioa eta arreta: 900 840 111



ORIOKO BALIABIDEAK (astelehenetik ostiralera)

Gizarte zerbitzuak:
943 83 03 46 luz.6

Saregile Orioko Emakumeon* Etxea:
623 178 553

SEXU-ERASO BATEN AURREAN AUKERA HAUEK ERE BADITUZU:

ZUZENEAN OSPITALERA JOAN

Osasun-azterketa egingo dizute, nahiz eta osasun-txartelik izan ez. Salaketa bideratzeko betebeharra dute.

GUARDIAKO EPAITEGIRA JOAN

Biktimari laguntzeko zerbitzuaz galdetu; han azalduko dizute guztia. Kalkutako Teresa plaza 1, Donostia. Astelehenetik larunbatera, 9:00-14:00 eta 17:00-20:00 Igandetan, 10:00-14:00

FROGAK funtsezkoak dira izan daitekeen epaiketari begira.

EZ ALDATU ARROPA, eta **EZ GARBITU** gorputzeko atal bat bera ere osasun-azterketa egin arte. Osasun-txostenen kopia eskatu, salaketa jartzeko beharko duzu.

GUZTION GOZAMENERAKO FESTA BATZUEN ALDE, **ESAN BAI:**

Zure buruarekin ondo sentitzeari, sexualitateak askatasunez bizitzeari, harreman eredu berriei, zu zeu izateari, zaintza-lanak banatzeari, askotariko gorputzei, elkartasun multikulturalari, plazerari!

Zeintzuk izango dira eskainiko dituzuen zerbitzuak?

Orion gune morea deitzen diogun zerbitzua egongo da. Karpa bat jarriko dugu informazio eta material desberdinarekin, jendea kontzientzia dadin jaiak espazio libreak izan behar dutela pertsona guztientzat eta identitate guztiek dutela ondo pasatzeko eskubidea. Horretarako, askotariko materiala banatzen dugu, hala nola pegatinak, txapak eta esku orriak. Helburua da mundu guztiari gogoraraztea jai feministen bila gabiltzala, eta jai horietan ez dagoela lekurik erasoentzako, ezta erasotzaileentzako ere. Autodefentsa feminista bultzatzen dugu karpa moretik. Berrez, ez da salaketak jasotzeko eta erasoak kudeatzeko zerbitzu bat, kontzientziario zerbitzu bat da. Hala ere, zerbait gertatuko balitz, laguntzeko prest egongo ginatke, baina hori ez da zerbitzuaren helburu nagusia. Horregatik ez gara egoten gau osoan zerbitzua eskaintzen.

Zer garrantzi du horrelako gune bat izateak herriko festetan?

Festetako testuinguruan, puntu moreak berebiziko garrantzia dute. Laguntza eta erreferentzia puntuak dira, ekitaldi jendetsuetan indarkeria matxista eta edozein motatako sexu erasoak saihesteko eta horiei aurre egiteko euskarriak dira. Behar dutenei berehalako laguntza eskaintzeko gaitasuna duten profesionalak kudeatzen dituzte, ingurune segurua eta konfiantzazkoa sortuz.

Leku segurua eskaintzen du puntu moreak, nahiz eta hori ez den lehen helburua. Errespetuari, berdintasunari eta indarkeria edo jazarpen egoera baten aurrean jarduteko moduari buruzko hezkuntza materiala banatzen du. Puntu horiek etengabe daude harremanetan udal langileekin, eta horrek edozein gorabeheraren aurrean erantzun azkarra eta koordinatua ematea bermatzen du.

Gainera, indartu egiten du komunitateak kide guztien segurtasunarekin eta ongi-zatearekin duen konpromisoa. Horrek konfiantzazko eta errespetuzko giroa sortzen du, eta jaiak beldurrik gabe goza-

«Puntu moreak funtsezkoak dira, bertaratzen diren guztientzat giro segurua eta errespetuzkoa bermatzeko»

Emagin Formazio eta ikerketa feminista elkarteak

Gune morea jarriko dute aurten berriro San Pedro festetan. Ekainaren 28an eta 29an ezarriko dute karpa, eta 01:00ak arte izango dela aurreikusten dute arduradunek. Zerbitzua Emagin elkarteak eskainiko du, eta herritarrek bertan aurkitu ahal izango dutenaren inguruan hitz egin du Orio Gukak Emagineko kideekin.



Emagin taldekoen puntu morea, artxiboko irudian. UTZITAKOIA

tzeko aukera eman. Puntu moreak komunitatea indartzen du, erasotzak ahaldunduz laguntzen duelako eta babes ukigarria eskaintzen duelako. Horrek salaketekiko eta edozein indarkeria modurekiko tolerantziarik eza sustatzen du.

Puntu moreak funtsezkoak dira, bertaratzen diren guztientzat giro segurua eta erres-

petuzkoa bermatzeko. Prebentzioak, hezkuntzak eta zuzeneko laguntza lanak erasotzak direnak babestuz gain, feminismoaren kultura sustatzen dute, komunitate osoa aberastuz. Zerbitzu horiek izatea genero indarkeria desagerrarazteko eta gizarte bidezkoagoa eraikitzeko konpromiso kolektiboaren lekuko da.

Nolakoa izaten da herritarren erantzuna? Zeintzuk izaten dira galdera edo zalantza nagusiak?

Harrera ona izaten du beti zerbitzuak. Normalean jendea festa giroan egoten da, baina, hala ere, interakzioak oso positiboak dira eta babesa jasotzen dugu. Galdera eta zalantzei dagokienez, batez ere, ordutegiaz

galdetzen dute, segurtasuna ematen baitie horrek, eta gainerakoan, feminismoarekin lotutako elkarrizketa eta eztabaida oso interesgarriak sortzen dira. Askotan, galderak baino ohikoagoak dira iruzkinak, eta bakoitzaren iritzia entzuten dugu; hortik pedagogia lana egiten dugu.

Zer profiletako jendea joan ohi da?

Emakumeak eta nortasun eta orientazio disidenteak dituzten pertsonak hurbiltzen dira gehien. Normalean, gazteak hurbiltzen dira, baina badira txapa bat egin eta zerbitzuaz gozatzen duten helduak ere. Gaueko ordu txikietan, batez besteko adina asko jaisten da, eta batez ere neska gazteak etortzen dira. Mutilak modu lotsatian hurbiltzen dira batzuetan, edo kuadrillako emakumeek 'tiraka' eramaten dituzte; hala ere, haiek ere gonbidatuta daude karpara etortzera, mutilei zuzendutako materiala ere badugu gune morean eta.



«Autodefentsa feminista bultzatzen dugu karpa moretik»

«Neskak eta nortasun nahiz orientazio disidenteak dituzten pertsonak hurbiltzen dira batik bat»

Kasu baten aurrean, zer pauso jarraitzen dituzue?

Lehenengo gauza gugana jotzen duena entzutea da, eta eraso baten ondorioz datorren pertsonari ahalik eta espazio segurua eskaintzea. Zerbitzua ez denez erasoak artatzen bideratzen, batzuetan zaila egiten zaigu horrelako espazio bat bilatzea, baina lehentasunak aldatzen ditugu eta beharrezkoa bada puntu morea une batez ixtea, arazorik gabe egiten dugu. Entzutean, unean uneko beharrak zein diren identifikatu behar dugu, eta zer ase dezakegun ikusi.

Musikaren doinuen aztikeriak hartuko du Orio

Herriko txoko guztiak girotuko ditu musikak sanpedroek iraungo duten lau egunetan. Baina doinu horiek forma eta kolore desberdinak izango dituzte. Izan ere, adin eta gustu desberdinetako herritarrei zuzendutako kontzertuak antolatu dituzte. Hala, herritar denek gozatzeko aukera izango dute.

Pirritx eta Porrotx pailazoen zera esan zuten *Bizitza kantubat da* abestian: «Kantatzen ez duenak zorionik ez du». Abesti hori oinarri hartuta, musikariek gabeko festarik ez dela ere esan daiteke. Eta hori horrela izanik, Orioko San Pedro jaietan zorientasun ugari izango dela aurreratu daiteke.

Izan ere, festek iraungo duten egunetan zehar, askotari-

ko doinuak entzun ahal izango dira herriko kaleetan.

Musikak, beraz, Orioko bazter eta txoko guztiak girotuko ditu lau egunez. Baina doinu horiek forma eta kolore desberdinak izango dituzte, adin eta gustu desberdinetako herritarrei zuzendutako kontzertuak antolatu baitituzte. Hala, herritar denek gozatzeko aukera izango dute.

Hona hemen ekaina amaieran hasiko diren San Pedro festetan entzun ahal izango diren

zenbait emanaldiren gaineko informazioa.

EKAINAK 29 Yogurhina borova, Haize Arrosa eta Eromena DJa

Iluntzean gehiegi berandutu gabe umeez eta helduek elkarrekin gozatzeko moduko orduan izango da Yogurhina Borova aktore eta kantari transformista audioarraren (Araba) emanaldia. *Polimaitasuna* diskoaren

atzetik, pasa den azaroan aurkeztu zuen *Amona molona* diskoa. Lan horretan pop estiloa da nagusi, ska, doinu elektroniko zein afrikar ukituekin; aniztasunaren eta zaintzaren aldeko eta *bullying*-aren kontrako lanketa bultzatzen du.

Berrizko (Bizkaia) Haize Arrosa, aldiz, talde berria da; pasa den azaroan kaleratu zuten *Ez dogu zor ezer* diskoa, Francis Diezen, Itziar Ituñoren eta Miren Agur Meaberen kolaborazioekin, besteak beste. Trikitia oinarri duen

taldea da, eta pop-rock erreperitorioa eskaintzen du nagusiki. Talde berria bada ere, plazetan eskarmentu handia dute musikariek, eta Eneritz Gorritxategi eta Edurtzeta Ania dira abeslariak. Azkenik, Eromena DJak alaituko du plaza goizaldera arte.

Aniztasunaren eta zaintzaren aldeko eta 'bullying'-aren kontrako lanketa bultzatzen du



Yogurinha Borova. UTZITAKOIA

GUKA
ZERBITZUAK
zarena plazara
www.gukazerbitzuak.eus

SUKIA
TABERNA · JATETXEA

Eguneko menua
Asteburuetakoa
Oilaskoak eramateko
Ogitartekoak
Plater konbinatuak
Terraza ederra
(alboan umeentzako parkea)

Ondo pasa jaiak!

Abaromendi 38, behea 1 · ORIO · 943-89 21 29



EKAINAK 29
Danbolin musika eta dantza eskolako banda

Danbolin musika eta dantza eskolako bandak San Pedro egunez eskainiko du kontzertua bigarren urtez segidan. Ordura arte txupinazoan parte hartzen zuten, baina herriko bandaren emanaldia indartu nahi izan dute herriko festetan. Argiz eta musika ekipoz edertuta, pop eta rock doinuekin ausartu da Olaia Askasibar zuzendaria kontzertuaren programa osatzerakoan. Abba, Alaska, Fermin Muguruza eta beste hainbat artistaren kantu ezagunak entzuteko aukera izango dute herritarrek. Festak eta udak eskatzen duten moduan, denen belarrietara gozo sartzeko moduko emanaldia prestatu dute Danbolinoko kideek.

EKAINAK 29
Txista gaua

Herriko plazan bertan kokatuko dugu mahaia, oholtzara igo

gabe. Herrian asko eta askotarikoak dira DJak, eta horietako hainbat festa bakarrean bilduko ditugu, San Pedro eguneko iluntzean hasita. Banaka edo taldean arituko dira.

EKAINAK 30
Bide Batez erromeria

2008an hasi zen Bide Batez taldearen ibilbidea. Ordura arte anaiarekin plazaz plaza ibiltzen zen Eneko Etxabek erritmo edo doinu berriagoak gehitu nahi izan zizkion errepertorioari, euskal musika herrikoia baztertu gabe, noski. Azken hamasei urteotan hainbat musika-rik parte hartu dute taldean. Egun, Kattalin Zubizarreta (ahotsa), Eneko Etxabe (trikitia), Aitor Amilibia (gitarra), Oihan Larrañaga (baxua) eta Ibai Ros (bateria) dira taldea osatzen dutenak. Plaza dantzan, saltoka edo abesten jartzeko mo-

Les Testarudes taldeko 9 emakume izango dira oholtzan

duko abestiak jotzen ditu Bide Batez taldeak. Trikitia protagonista duen musika tradizionalek hasita, azken urteotako abesti ezagunenetaraino zabaldu dute beren eskaintza.

EKAINAK 30
Les Testarudes

Bederatzi emakume oholtzaganean, 20-30 urte artekoak denak. Kataluniako herri askotatik Bartzelona hiriburuko La Bordeta auzora bertaratu ziren, ska, rock eta reggae musikan emakumezkoentzat espazio propioa sortzera. Baita lortu ere, urtebete eskas daramate oholtzaganean elkarrekin eta bete-betea izan dute agenda. Prozesu bat izan da beraientzat orain arteko bidea; kultura musikal jamaikarrean emakumezko sortzaileen lanaren ikasketa eta ezagutza. Publikoarentzat, berriz, musika dantzagarria izango da eskura. Etxeluze gaztetxearen XIV. urteurren festan entzungo ditugu, herriko plazan, 23:00etatik aurrera.

OINARRI
PODOLOGIA
ZENTROA

Ondo pasa jaiak!

Arrantzale kalea, 63 behea · ORIO · 943-57 53 61
oinarri@podologia-oinarri.com · www.podologia-oinarri.com

Orio

OPTIKA

Herriko plaza 3, Orio
943-13 05 82 · 688 62 63 66
opticaorio@gmail.com

Col. 5.156

OF
OFISIOLOGIA
OFISIOLOGIA

Ekografia · Eskuzko terapia ·
Puntzio lehorra, Epi, Neuromodulazioa ·
Tecarterapia · Pilates · K stretch

Eusko Gudarien kalea 54, behea · 604 19 24 98

Hemengo haragia.
Etxeko produktua: tripaki,
odolki, txekorra, txorizo,
kroketak...

PATXI
OLIBIDEN

URDAITEGIA

Eusko Gudari, 25
943-83 00 10

TXANKA
MARISCOS

648 27 04 97

www.mariscostxanka.net | info@mariscostxanka.com
ORTZAIIKA AUZOA | TXANKA BASERRIA Z/G ORIO

Herriko festak antolatzekeo balioen multzoa

8 balio
43 proposamen

1 Parte-hartzaileak

Herritarrok egiten dugu festa; elkarleen bidez, herritarrak gara motorra. Herri langilea da Orio, talde-lanean ari dena. Askotariko herritarrak arduratik eta gozamenetik ari dira, eta parte-hartze horrek baditu bi dimentsio: proposatzailea eta exekutatzailea. Hau da, festa-ereduaren inguruan hausnartzea, batzordean proposamenak egitea eta, festa aurretik zein jaiegunean, lan egin eta gozatzea da helburua.

Eskatzeaz haratago, norberak taldean egitea da gakoa. Festetan ez gara hornitzaile eta bezero: lanean ari direnak berentzat eta oriotarrontzat ari dira. Horregatik, ongi etorriak izango dira festen inguruko balorazioak edo kritikak, baina lanean aritu den jendea zainduz beti.

PROPOSAMEN ZEHATZAK

1. Batzordeko bilerak garaiz antolatu: sanpedroak urtarrilean eta sanikolasak uztailean hasi.
2. Batzordeko deialdiak ahalik eta irekienak eta erreferentzialenak egin, ohiturak sortu.
3. Batzordean gutxien parte hartzen duten adin-tarteak modu berezian landu: gazteak eta adinekoak.
4. Batzordean festari lotutako profesional guztien parte-hartzea ziurtatu.
5. *Parte-hartzearen dikotomia* landu: batzordean iritzi emateaz gain, festetan ardura bat hartuz.
6. Festa-batzordetik, datak gerturatu ahala, ardurak eta lanak banatzeko izen-emateak bultzatu.
7. Etengabe, festa parte-hartzailea bihurtzeko formulak arakatu.
8. Ikusteko diren ekitaldiak eta parte-hartzea bultzatzen dutenak orekatu.

2 Belaunaldiartekoak

San Nikolas eta San Pedro festek aukera eskaini behar dute adin ezberdinetakoek parte hartzeko. Identifikatu dugu zein adin-tartetan jaisten den parte-hartzea: umeei, 12-16 urte bitarteko gaztetxoei eta 60 urtez gorako herritarrei erraztu behar zaie festaz gozatzeko aukera.

Ahalegin berezia egingo dugu belaunaldiarteko ekintzak bultzatzeko; alegia, belaunaldi ezberdinetako oriotarrei aukera eskaini behar diegu festa elkarrekin bizitzeko.

PROPOSAMEN ZEHATZAK

1. Berariaz lanketa egingo dugu 12-16 urteko gazteekin eta hirugarren adinekoekin, bi ikastetxeen, Txurumuski aisialdi-taldearen eta Zaharren Babeslekuaren bitartez.
2. Ahal bada, egunero programatuko ditugu adin ezberdinetarako ekintzak.
3. Gazteen egunak edo adinekoentzako festa-eguna izendatuko ditugu.
4. Gazteen arteko jokoetan gaur egungo eta garai batekoak uztartuko ditugu.
5. Beste herrietan sortzen diren belaunaldiarteko ekintzak herrira ekartzeko aukera aztertuko dugu.
6. Sukaldaritza-ekimenak gako izan daitezke belaunaldiarteko ekimenak egiteko, baina aukera gehiago aztertuko ditugu. Alegia, sukaldaritza ez dadila izan adin ezberdinetakoak biltzeko interesgune bakarra.
7. Herriko elkarte gastronomikoen inplikazioa bultzatu, belaunaldiarteko proposamenak sortzeko.



3 Askeak eta seguruak (erasorik gabeak)

Askotarikoak gara oriotarrak eta inor ez da erasotua izango adin, arraza, kultura edo sexu-aukerarengatik. Herriko festen antolakuntzak ez die zirrikiturik utziko erasoei eta erasotzaileei.

PROPOSAMEN ZEHATZAK

1. Aldiro-aldiri, indarkeria matxistari, indarkeria sexistari, LGBTQ+ fobiari, arrazakeriari eta beste indarkeria-kasuei erantzuteko protokoloa berrituko da festen aurretik. Protokoloak zehaztuta utziko ditu nola identifikatuko den eraso, erasotzailea festa-gunetik kanporatzeko bidea, erasotuari eskaini beharreko laguntza eta aholkularitza, jai-guneetako arduradunen eta udal-ordezkarrien arteko koordinazioa eta gertakariaren salaketa publikoa egiteko modua.
2. Indarkeria matxistari erantzuteko protokoloa komunikatzeko euskarriak landuko dira.
3. Festa-egunetan, iluntzean eta gauean, eraso matxisten informazio-zerbitzua jarriko da.
4. Pertsoez gain, herriko altzariak jasaten dituzten kalteak zerrendatu.

04 Feministak

Mugimendu feministarekin elkarlanean, festa parekideak lortzeko pausoak emango dira. Hiru dira lan-lerroak: guztiontzat espazio seguruak sortzea, genero-rolak eta ardurak orekatzea eta artista emakumeen ikusgarritasuna lantzea.

PROPOSAMEN ZEHATZAK

1. Oholtzan emakume eta gizonezko artisten oreka %50 inguruan ibiltzea.
2. Ohiko lan-banaketari buelta ematea, otorduetan bereziki: zaindu egingo da zerbitzen, garbitzen eta mikroa eskuan daudenak zein diren.
3. Herriko festek kirol-lehiaketak hartzen dituzte eta lanketa berezia egingo da lehiaketa horien kategorizazioan eta irabazleen ikusgarritasunean.

05 Euskaldunak eta euskaradunak

Euskara erabiliko dugu herriko festetan, eta bozgorailutik entzuten dugun musika ere nagusiki euskarazkoa izango da. Hori bai, ez gaude itxita beste hizkuntzetan egiten den kulturetara, baina euskaraz egiten den kulturaren ardaztu nahi ditugu San Pedro eta San Nikolas festak.

Herri-izaera errespetatu eta aldarrikatzeko, Euskal Herriko eta Orioko ohiturak mantentzea da helburua, baina tradizioa ez dadila aitzakia izan festa berdinzaleagoak ez gauzatzeko, tradizioa berritzen diren ohituren multzoa baita, garaiko balioetara egokitzen dena.

Festek baliagarri izan behar dute herriko proiektu nagusiak balioan jartzeko, hala nola herriko kultur, kirol- eta aisialdi-taldeak, eragile sozialak, ikastetxeak eta Danbolin Musika eskolak, besteak beste.

PROPOSAMEN ZEHATZAK

1. Euskaraz sortutako kulturarentzat %75eko kuota proposatzen dugu, eta %25ekoa beste kulturetakoentzat.
2. Aztertuko da ea plazako musikak (oholtzakoak eta txosnakoak) eta programazioak betetzen ote dituen ezarritako kuota. Programatu aurretik eta ondoren aztertuko dira laginak.
3. Herri-izaera eta kohesioa indartzen duten ekitaldiak bultzatuko dira, baina bereziki zainduko da berdintasunaren eta aniztasunaren inguruko zeharlerroak betetzen dituzten edo ez.
4. Orioko festen historia ezagutzeko ikerketak bultzatuko dira.
5. Festetan eragile guztien lana jarriko da balioan programan eta ekitaldian zehar.

06 Anitzak, askotarikoak

Denok elkarrekin ospatu nahi ditugu festak. Izan ere, jaiak baliagarriak dira herrian bizi diren kolektibo guztien ikusgarritasuna lantzeko. Horregatik, ahalegina egingo dugu gutxiengoan dauden herritar-taldeen festek ere erdigunea har dezaten eta ohikoagoak diren proposamenekin uztartzeko.

Gutxiengoan dauden kolektiboak askotarikoak izan daitezke. Esaterako, baliatu ditzagun festak arrakala sozialak bistartzeko, etorri berriak herrian integratzeko edo festa-eredu bakarra heteroarauetatik ez sortzeko.

07 Bizigarriak

Plaza izango da festaren epizentroa, plaza herritarrez beteta ikustea da festetako argazki ederrenetakoa. Halere, ibilbide ezberdinak sortuko dira festa herriko beste txokoetara zabaltzeko.

Eguneko festa bultzatuko da, adin guztietako herritarrengana iristeko modurik osasungarriena delako. Halere, ez da gaueko festa kriminalizatuko, denontzat izan baita gaua noizbait festa-momentua.

Herriko festetan kontsumo kontziente eta arduratsuen inguruko gogoeta sustatuko dugu.

Azkenik, herri eta jai zaintzaileak antolatu nahi ditugu, zaintza ez baita mendekotasuna duten pertsonen beharrak asetzeko egiten dugun lana bakarrik. Elkarzaintza, autozaintza, komunitatearen zaintza, espazioaren eta ingurugiroaren zaintza kontuan izango dugu.

PROPOSAMEN ZEHATZAK

1. Ekitaldi nagusiak plazan egingo dira, erdigunea delako eta azpiegitura nagusiak bertan daudelako.
2. Ekitaldietan bolumena zainduko da, goizaldeko eta goizeko lehen orduetan nagusiki.
3. Plazaren garbitasuna zainduko da, ekitaldien aurretik eta ondoren.
4. Ekitaldi ibiltarien zirkuituak landuko dira, festa auzo eta kale gehiagotara iristeko. Publiko egingo dira ibilbide horiek, ezustekoak ekidin eta segurtasuna bermatzeko.
5. Aurrera begira, herriko kontsumitzen diren sustantzien inguruko ikerketa egingo da.

PROPOSAMEN ZEHATZAK

1. Elkarlan jarraia egingo da herrian abiatu den LGTBIQ+ kolektiboarekin.
2. Atzerritarren edo etorkinen proposamenak jasotzeko ahalegina egingo da, antolatutako komunitateekin hasita. Proposamenak eskatuko zaizkie eta festara gonbidatu.
3. Lanketa sozialen bat oinarrian duten ikuskizunak eta eragileen proposamenak txertatuko dira festetan.
4. Proposamen berriak hegemonikoekin uztartuta aurkezteko ahalegina egingo da.
5. Kolektibo horien alde lanean ari diren herritarren bitartekaritza eta ikusgarritasuna landuko da.

08 Jasangarriak

Kontsumo arduratsuan eta naturarekiko errespetuan antolatu nahi ditugu herriko festak. Horregatik, bereziki zainduko ditugu festetan eskaintzen ditugun otorduak. Aukera beganoko otorduak eskainiko ditugu, eta herriko gertuko produktuekin osatuko ditugu festetako menuak. Horrez gain, festetan sortzen den zaborraren inguruko kontzientzia eta ekintza zuzena landu nahi ditugu.

PROPOSAMEN ZEHATZAK

1. Otorduen diseinuan, osagaiak herrian bertan erostea lehenetsiko dugu.
2. Otorduetan, ahal denean, etiketarik gabeko menuak sortuko ditugu, menu beganoa eta normala bezalako terminoak sahistuko ditugu.
3. Herri-bazkarietan menuak oinarri berbera eta beganoa izatea da helburu nagusia.
4. Dastaketetan menu beganoa eskainiko dugu.
5. Festa-batzordeak erraztasunak eskainiko dizkie otorduen antolatzaileei helburuak lortzen errazteko.
6. Otorduetan sortzen den zaborra gutxitu eta egokiago kudeatzeko lanketa zehatzak egingo dira.

O H A R R A K

Dokumentu hau festa-batzordeak landu du 2024ko udaberriko bileretan.

Festen balioen multzo hau malgua eta irekia da, eta etengabe berrikusi eta egokituko da.

AGENDA

Ekainak 28, ostirala

Harrotasunaren Eguna

- 10:30-12:30.** Jubilatuen hamaiketakoa, Zaharren Babeslekuan.
- 14:30.** 16 urte artekoen 3x3 futbol txapelketa, Zaragueta Herri Eskolak antolatuta.
- 18:30.** Pello eta Nikolasa erraldoiak Danbolin musika eskolako txistulariekin, Vilafranca del Penedes herriko Drac eta Aliga figurekin eta Hernaniko dultzaina jotzaileekin.
- 19:00.** Pala txapelketaren finala, frontoian.
- 20:00.** Festen hasierako txupinazioa eta txosnen irekiera.
- 20:15.** Yogurina Borovaren familientzat emanaldia, Herriko Plazan.
- 23:00.** Erromeria eta festa: Haizea Arrosa eta Eromena DJa.

Ekainak 29, larunbata

San Pedro Eguna

- 06:00.** Gaupaseroen argazkia, eskaileretan.
- 11:00.** Talai Mendik 75 urte: *slackline* ikuskizuna, udaletxetik Frantses fabrikara.

Haur eta gazteentzat errio gainean bigarren soka bat jarriko dute.

- 11:30.** Bizikleta igoera, plazatik San Martinera. 14 urte bitartekoek plazatik Pilikura egingo dute.
- 12:30.** Bikote gazteen XIII. Trikitixa Txapelketa, plazan.
- 12:30.** Meza, Salatxo abesbatzarekin.
- 17:00.** Haur eta gazteen pilota txapelketako finalak, frontoian.
- 17:00.** Helduen dardo txapelketa, Aurrera tabernan.
- 18:00.** Soka dantza, Herriko Plazan.
- 19:00.** Danbolin musika eskolako bandaren kontzertua, Herriko Plazan.
- 19:30.** Pello eta Nikolasa erraldoiak, Danbolin musika eskolako trikitilariekin, Vilafranca del Penedes herriko Drac eta Aliga figurekin eta Bidebietako gaita jotzaileekin.
- 20:00.** Txista gaua: herriko disko jartzaileen emanaldia, plazan.

Ekainak 30, igandea

Arrantzale Eguna

- 11:00.** Arrantzale Eguneko desfilea, kalez kale.
- 11:00.** Kimuen arraun erakustaldia.
- 12:00.** Beteranoen estropadak: Jakes Landa memoriala, hamargarren bandera.
- 12:00.** Sardinak herriko hiru txokotan, eta sagardoa, plazan.

12:30. Haur eta gaztetxoek dardo txapelketa, Aurrera tabernan.

- 13:30.** Arrantzale Eguneko ekitaldia, plazan.
- 15:00.** Herri bazkaria, plazan edo frontoian, eguraldiaren arabera.
- 17:00.** Bide Batez erromeria, plazan.
- 20:00.** Herriko txaranga.
- Ibilbidea: Abeslari, plaza, Aritzaga, Ibai Ondo, plaza.
- 23:00.** Etxeluze gaztetxearen XIV. urteurrenaren harira, Les Testarudes taldearen kontzertua, plazan.

Uztailak 1, astelehena

San Pedro hirugarrena

- Euskadiko Ferialari Autonomoen Elkartearen eta Orioko Udalaren arteko hitzarmenari esker, barraken prezioa euro batekoa izango da egun osoan.
- 11:00.** *Tapiza: Irudimena plazara!* DBHko gazteei bideratutako arte jarduera, plazan. Aurrez eman behar da izena.
- 11:30.** Heriotzarik gabeko arrantza, anbulatorio atzean: benjaminak, kimuak eta infantilak.
- 13:30.** Pintxo hotzen lehiaketa, plazan, Orioko Herri Ikastolak antolatuta. Aurrez eman behar da izena.
- 14:00.** 70 urtetik gorako oriotarren bazkaria, Vila Antilla hotelean. Aurrez eman behar da izena.
- 18:00.** Txurrudiskoteka, gaztetxean.



lazko Arrantzale Eguneko dantzaren irudia. ROSANA ARRUTI ARGAZKI ESTUDIOA

Iritzia

Anuska Esnal - Alkatea

Momentua gozatu eta etorkizuna landu

Egun gutxi falta dira herriko festak has-teko. Asteburuan tokatu dira aurten, oriotarren gehiengoak ez dugu aitzakiarik uda atariko festez gozatzeko: ostirala, larunbata eta igandea, hiru egun ekitaldiz bete-beteak. Eskerrik asko batzordekideei, baita ekitaldi bakoitzaren antolaketa fintzen ari zareten herritarrei eta elkartei ere.

Festen aurretik egindako lanean jarri nahi dut begia. Egitaraua antolatzeaz gain, festen antolaketan kontuan izatekoak landu eta erredaktatu ditu Festa Batzordeak. Guztiona izan nahi duen festari bide orria jarri zaio, eta

idatziz jaso dugu. Ez da kultur eragileen parte hartze prozesu bakarra, negutik udara kulturaren panoramaren etorkizuna marrazten ari dira elkarteetako kideak. Saitetik begia jaso bidean da zaintzaren inguruko diagnosa, eskola kirolaren

«Guztiona izan nahi duen festari bide orria jarri zaio, eta idatziz jaso dugu»

«Ospa ditzagun festak elkarrekin, eta disfruta dezagun lagunartez»

gogoeta, Hezkidetza Plana eta beste hainbat ikerketa. Zehar lerroak ahalik eta zabaldu landu nahi ditugu, baina dagoneko herria mugitzen ari da, eskuak lanean eta burua pentsatzen. Elkarlana da bidea herri bizigarriagoa eta berdinzaleagoa sortzeko. Festak egunerokoaren isla besterik ez dira, eta elkarlanak eramango gaitu oriotar guztientzako ekitaldi erreferentzialak indartzera.

Ospa ditzagun herriko festak elkarrekin, eta disfruta dezagun lagunartez, taldearen beroaz eta auzotarren babesaz. Elkarrekiko errespetutik, guztion gozamenerrako.



Baraka

taberna

Aita Lertxundi 23 • ORIO
943-54 37 24

Gosariak 07:00etatik aurrera
Pintxoak, ogitartekoak, entsaladak,
hanburesak, eguneko platerak...
2 terraza ditugu. Gaueko giroa ere bai.

GORRA

SAN PEDRO

JAIK!



Kirol guztiak ikusgai (6 pantaila)

LALIGA

